

# JESUSEN BIOTZARI



A

ERRIAK

Maitasunen egarrían  
Bizi zarena munduan,  
Ase zaité maitasunez  
Jesusen Biotz dontsuan.

BATZUK

I

Nik billatu dot  
Maite nebana:<sup>1</sup>  
Ona emen dakust  
Altara-aurrean.  
¡Ai neure poza!  
¡Ai neure eztiá!  
¡Gorde naizula  
Biotz Zurean!

II

Neketan nago,  
Jesuslaztana:  
Lasterka nator

Bide luzean,  
Iturri garbi  
Gozoetara  
Oriñ azkarra  
Doan antzean.<sup>2</sup>

III

Eskeñiarren  
Lurreko eztiak,  
Nazalako ni  
Gozo-zalea,  
¿Zer emon deuste?  
Ur-tanta mingots  
Gose-egarríen  
Esnatzailea.

(1) Inveni quem diligit anima mea. (Cant. III.)

(2) Quæmadmodum desiderat cervus ad fontes aquarum, ita desiderat anima mea ad te, Deus. (Psalm. XLI.)

## IV

¡A! ¡Baleike  
 Jenteak, zer dan  
 Zure ur garbien  
 Gozotasuna!  
 ¡Zeinbat samiñek  
 Leukake ezta,  
 Ta zeinbat gaisok  
 Bere osasuna!

## V

Zuretzako Zuk  
 Egiñak gara;  
 Zugan nai dogu  
 Bizi maiterik  
 Zugandik urrun,  
 Jesus biguna,  
 Gure biotzak  
 Eztau bakerik.

## B

## ERRIAK

Gurtu daigun  
 Jaungoiko gure Egilea  
 Gizon danen janaritzat  
 Altara orretan gordea.

## BATZUK

## I

Or barruan  
 Daga umillik,  
 Estaldua,  
 Gizonaren  
 Janaritzat  
 ¡Jaungoikua!

## II

Zeru-lurren  
 Jaube badan,

Eztirudi.  
 Ogi piskat  
 Ikusten da  
 Zuri-zuri,

## III

—Jaun donea,  
 ¿Noizko dozuz  
 Ondasunak?  
 ¿Zeñek olan  
 Estal zaitu?  
 —Maitasunak.

## Z

## ERRIAK

Artzai donea  
 Zeran Jesus,  
 Zure artaldean  
 Ar nazazu.

## BATZUK

## I

Zugana nator  
 Jesusnerea,  
 Maite maitea,  
 Ni Zugana:  
 Bada Zu zera  
 Maitegarririk,  
 Zu zera artzairik  
 Gozoena.

## II

Ibilli badet  
 Bide galdua,  
 Etsai mundua

Jarraiturik,  
 Emen naukazu  
 Gaur, parka-eskean,  
 Aldara-aurrean  
 Auspezturik.

## III

Aztu itzatzu  
 Nere uts eitiak,  
 Eta guziak  
 Estal zatzu.  
 Damu det, Jauna,  
 Oben egiña  
 Negar samiña  
 Ken zadazu.

DOMINGO AGIRRE, *Abadeak*.

## EUSKERAZKO EREZIAK ELIZARAKOAK

### CÁNTICOS BASCONGADOS SAGRADOS

El primer cuaderno que acaba de publicarse en la imprenta de la revista *Euskalzale*, contiene lo, siguiente:

I. *Erdu, goazan guztiok...* (venid, vamos todos).—II. *Maiatze-ko lorakaz*. (Con flores de Mayo).—III. *Mariaren semeak*. (Hijos de María).—IV. *O Biotz gozo gozoa*. (Oh Corazón dulcísimo, ó Cor voluptas coelitum).

Agradecemos el envío á su autor el ilustre bascófilo presbítero Doctor D. Resurrección María de Azkue, colaborador de la EUSKAL-ERRIA.

A la publicación de *Euskerazko ereziak* se suscribe en casa de Aranguren é hijos, Bidebarrieta, 12, Bilbao, y en la misma imprenta, Jardines, 10, 2.º Cada cuaderno vale dos pesetas.